

**DICCIONARIO GENERAL VASCO/
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)**

(Bilbo, 1987-XII-17)

**DICCIONARIO GENERAL VASCO /
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)**

LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1987-XII-17

*Jose Alberto Pradera
Bizkaiko Foru Diputazioko Diputatu Nagusia*

Jaun-andre agurgarriok. Arratsaldeon:

Bizkaiko Foru-Aldundira ongi etorriak izan zaiteze.

Koldo Mitxelena zanaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aurkezpena egiteko batu gara gaur hemen.

Hasieran, haren asmoa Azkueren hiztegia gaurkotu eta zuzentzea izan zan, baina gero, hogeita hamar urte luzetan jardun eban lan hori burutzen.

Agindua Euskaltzaindiak emon eutson, eta lana egin eta argitaratzeko Euskal Herriko erakundeen languntza izan eban.

Erraldoi-lana izan da, eta ikerketa-mailan gaur arte ez dogu euskereari buruzko lan garrantzitsuagorik, eta hori Koldori esker da, bera izan da mundu guztian zehar euskerea goi-mailan jarri dauana-ta.

Koldo joan jaku, baina bere lanei esker beti izango dogu gugaz.

Eskerrik asko.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENA

Bilbon, 1987-XII-17

Fr. Luis Villasante

Jose Antonio Ardantza lehendakari agurgarria
Jose Alberto Pradera Bizkaiko Diputatu Nagusia
Nafarroako Gobernuko Ordezkaria
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioetako ordezkariek
Bilboko Alkate jauna
Koldo Mitxelena zenaren seme Rafael jauna

Jaun-andreak:

Egun zoragarria hauxe, hodei moduko batek goibelduko ez balu: egilea bera ez baita gehiago gurekin. Hiztegi honek argitara irten behar zuen uanean bertan joan zaigu (G. B.).

Gaur kaleratzen den obra hau dugu, zalantza gabe, Koldoren ikerketa-lanak ekarri digun emaitzarik handienetako bat, handiena ez bada. "Handiena ez bada" diot, ezen Mitxelenak badu bere izenarekin betiko lotua geldituko den besterik ere, esate baterako, euskararen batasuna; baina bego.

Euskaltzaindiaren aginduz hartu zuen Koldok beregain hiztegi hau egiteko ardura. Bada hogeitamar urte baino gehiago hori gertatu zela. Zehazkiago mintzatuz, esan behar da orduan gu denon gogoan zegoena besterik zela, hots, Azkue-ren hiztegia zuzendua, gaurkotua eta osatua ematea. Mitxelena berehala lanari lotu zen agindu hori betetzeko asmoz, baina ezarian edo igarri gabe, haren behatz-artean sortzen ari zena zerbait bestelako bilakatu zen, bai luze-laburrean, bai zabalean eta bai sakonean ere, erabat obra berri bilakatu zen, alegia. Eta bitartean teknika eta tresna berriak ere azaldu ziren, ordenagailua batipat. Mitxelena berandu xamar, baina aski goiz halere, jabetu zen, teknika berriak erabili gabe gaurko egunean ez dagoela honelako lan bat egiterik, eta Ibon Sarasola eta Eusko Jaurlaritzako Informatika Erakundeari esker burutu ahal izan du bere asmoa.

Obra honen tamainaz jabe zaitezten, esan behar dut gaur kaleratzen den liburuauren neurriko beste bederatzi guttinez atera beharko direla oraindik, hiztegi haundi honi buru emateko. Materiale guztiak bilduak, hautatuak eta bideratuak utzi ditu Mitxelenak. Beraz, aterako diren tomo guztiak berarenak dira eta eskubide osoz beraren izena eramango dute.

Baina hiztegi hau burutzea ez zen posible gertatuko egileak ekonomi aldetik laguntza izan ez balu. Eta zorionean izan du. 1984ean sinatzen dute akordio bat Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek alde batetik, eta Euskaltzaindiak bestetik: haiek obra hau diruz laguntzera konprometitzen dira eta Euskaltzaindia obra egin arazi eta argitaratzera. Nafarroa falta zen, eta, hain zuzen, gaur bertan sinatu du berak ere obra honetan parte hartzeko bere atxikimendua.

Eta esan dezagun, laburzki bederen, zer den edo zertarako den hiztegi hau; honelako hiztegi bat, alegia, zergatik behar-beharrezkoa dugun. Hiztegi honek euskararen hitzen altorra edo ondarea bildurik eman nahi digu, euskaraz gizaldiz-gizaldi erabili diren hitz guztiei buruz berri zehatz eta ugariak emanez. Eta gure hizkuntza horren beharrean zen, alajaina! Bai. Askotan euskal hiztegia baso itxi eta nahasi baten pare da; hitz askoren sinestamenduak ez ditugu garbi jakiten, hizkuntzan hitz batek norainoko erroztapena duen neurtzeko modurik ez dugu izaten, eta, hain zuzen, guzti horri buruz berri zehatz-ugariak ematen zaizkigu hiztegi honetan: noiztik agertzen den harako hitz hura hizkuntzan, zein idazlek erabili duten, zein euskalkitan den ezagun, adibideak, adierak, eta abar. Ez dizu esango "hitz hau ez bedi erabil", "beste hau bai". Ez da arau emailea, historiko antzekoa baizik. Esanik dago honez gero honekin ere ez dagoela dena egina, baina hau zen lehenbiziko urratsa eta hurrengoan nolabaiteko oinarria ere bai. Gerokoak gero egin beharko dira eta egingo dira, Jainkoa lagun.

Egun handia eta benetan pozgarria da gaurkoa. Eskerrak eman nahi dizkiet, bihotz-bihotzez gainera, gure agintariei obra handi hau esku zabalez lagundu eta bultzatu dutelako; argitaratzaile Desclée eta Mensajerori, eta Ibon eta lantaldeari, orain arte egindako lanagatik eta hemendik aurrera argitalpen honi buru eman arte egin beharko dutenagatik.

Obra handi hau ezin utzizko tresna izango dute herrian ezezik baita atzerrian ere, hizkuntzalari, ikerlari, irakasle, idazle, hitz batean, euskararen ezagupenean gauzen zolaraino jo nahi duten guztiek. Bai. Zinez egun handia dugu hau.



PRESENTACION DEL *DICCIONARIO* *GENERAL VASCO (VOL. 1.º)*

(Bilbao, 17 de Diciembre de 1987)

Fr. Luis Villasante

Señoras, señores:

Una especie de nube empaña la alegría de este acto: que ya no está él con nosotros. Se nos ha ido justamente cuando debía iniciarse la publicación de su magna obra, que es la obra de su vida. Obra de un alcance y trascendencia para el futuro de la lengua vasca que yo no sabría justipreciar o tasar, pero que sin duda es muy alto. Obra que Koldo asumió y ha realizado por encargo de la Academia y que ha sido de larga, muy larga gestación.

Empecemos por los ya lejanos orígenes de este Diccionario. En la sesión académica celebrada en San Sebastián el 28 de Octubre de 1955 —y fue A. Irigoyen, aquí presente, quien dio cuenta de ello— se hace saber que ya no está a la venta, por haberse agotado, el *Diccionario Vasco-Español-Francés* de D. Resurrección M.^a de Azkue en 2 tomos, publicado 50 años antes, o sea, en 1905-1906, gracias a la ayuda de la Excm. Diputación de Vizcaya. El mismo Sr. Irigoyen lee en la sesión un informe subrayando la necesidad de que se vuelva a imprimir este Diccionario con algunas enmiendas y puntualizaciones, si es preciso. Los académicos unánimamente asienten a lo expuesto por el Sr. Irigoyen. En la siguiente sesión, celebrada en San Sebastián el 25 de Noviembre de 1955, Michelena presenta una especie de ponencia sobre este tema de la reedición del Azkue, y se le pide que para la próxima sesión traiga un plan o proyecto detallado. Por extravío seguramente no aparecen las actas de las sesiones siguientes. No hay que olvidar que por aquellos años no se publicaba el órgano **Euskera** y la Academia no llevaba una vida normal. A buen seguro fue en una de estas sesiones de 1955 cuando Euskaltzaindia encargó a Michelena la preparación de la reedición del Azkue, pero puesto al día, o sea, corregido, completado etc. Fijaos en la fecha del encargo. Han pasado desde entonces más de 30 años. ¿Por qué tan larga dilación? Michelena se consagró a su labor inmediatamente, o sea, desde el principio, y creo que nunca la dejó de la mano. Pero para poder vivir tenía que dedicarse a dar clases, y cuando, por fin, se le abrieron las puertas de la Universidad, que era su vocación, se fue a ella, pero sin dejar la responsabilidad del Diccionario. Este poco a poco fue saliendo de sus manos de tal modo reelaborado, transformado y agrandado, que ya no era el Azkue, sino obra enteramente nueva. Llegó también un día en que aquello desbordaba las posibilidades de una sola persona. El autor se convenció de que hoy no se puede hacer una obra de esta naturaleza a base de fichas y cuadernos, como fue el caso de

Azkue. Se hacía preciso el recurso al ordenador. Encontró también un colaborador fiel que trabajara a sus órdenes, Ibon.

Por fin, Michelena halló (y decimos halló, que es, según creo, dar con algo sin buscarlo), halló también el Mecenas, sin cuya ayuda no hubiera sido posible realizar la obra: el Gobierno Vasco y las Excmas. Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya; y hoy mismo, precisamente antes de este acto, se ha formalizado y firmado la adhesión y participación de Navarra a esta magna obra cultural. Debo dar las gracias a nuestras autoridades, que, al patrocinar esta iniciativa, demuestran tener conciencia de su trascendencia y significación.

Permitidme un desahogo. Creo que en los años que llevo al frente de la Academia éste es el día más feliz para mí. Siempre fue mi mayor preocupación el ver que esta obra, tan necesaria para la lengua y cultura vasca, se demoraba, sea por unas causas u otras, no siempre fáciles de averiguar, pues el autor solía guardar un silencio cuasi pudoroso sobre este particular.

Debo dar también las gracias a los editores Desclee y Mensajero, a quienes se les adjudicó, tras subasta, la edición. Ellos se darán perfecta cuenta, creo, de que esta obra no es sólo para andar dentro de casa, sino que se le debe dar una difusión internacional o mundial, y espero que así sabrán hacerlo.

Y ¿qué es a todo esto el *Diccionario General Vasco*, cuya publicación hoy se inicia? El propio Michelena escribió en su “Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue” (inserto en la última reedición de éste, que hizo la Academia en 1983, p. 28): “No será fácil hallar, a través del ancho mundo, una tradición léxica más abigarrada que la nuestra, confusión casi inextricable de fantasía y realidad”. Efectivamente, la literatura en lengua vasca, a pesar de su volumen más bien modesto y a pesar de que en el tiempo se extiende a un exiguo número de siglos, ha conocido en su corta existencia frecuentes bandazos, cortes bruscos; diríase que la nueva generación quería enterrar a la anterior y comenzar de cero. Esto hace que el que quiera asomarse a esta literatura se encuentre con un espectáculo abigarrado, como nos ha dicho Koldo, en el que hasta hoy no era fácil orientarse, al no existir un diccionario general descriptivo como éste. No obstante, y pese a esta impresión inicial un tanto negativa, creemos que de entre la maraña emerge un hilo conductor o línea de continuidad que no es difícil de percibir.

Dicho con otras palabras, el *Diccionario General Vasco* quiere darnos, y creo que lo consigue, la auténtica y genuina tradición vasca. Pero aquí urge hacer una precisión: cuando digo “genuina y auténtica” no quiero decir que Michelena se proponga, directamente al menos, enunciar juicios de valor: él quiere contarnos cómo ha sido, históricamente, el léxico vasco, o sea, qué palabras se han empleado; él no nos dirá: “Esto se debe emplear y esto otro no”; nos da los datos, los autores y testigos. Para ello ha tenido que realizar el despojo, prácticamente exhaustivo, con auxilio de la informática, de los autores vascos. Algún tope tenía que imponerse, y ha prescindido de los de las últimas décadas.

Claro que con esto no está hecho todo. Hará falta el diccionario de los últimos años, el normativo, el del léxico urbano etc. Pero, sin duda, por aquí había que empezar y esto está hecho, gracias a Michelena y a sus colaboradores y a los que con su ayuda económica han hecho posible la realización de este

ambicioso proyecto. Se calcula que la publicación de la obra completa, que Michelena ha dejado prácticamente terminada en sus elementos esenciales, comprenderá unos 10 tomos poco más o menos como éste que hoy se presenta al público.

Quiero agradecer a Ibon y al grupo que con él trabaja la aplicación y cariño puestos en la obra, cariño con el que espero la llevarán a buen fin, y agradecer asimismo a cuantos con su presencia han querido honrar y realzar este acto. Creo que su alta significación se lo merecía.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1987-XII-17

M.^a Karmen Garmendia

Lehendakari jaun txit gorena
herri-agintari prestuak
Euskaltzain agurgarriak
Jaun-Andreak:

Pozez eta atseginez bildu gara gaurkoan, Euskaltzaindiaren gomite-deiari erantzunez, Euskal Herriaren hainbat eskualdetako kideak: dela norbanaka etorriak, dela Herri-Aginte, erakunde eta elkarte desberdinen ordezkari bertaratuak.

Ez da gutxiagotarako, gainera, poz-atsegin hori: egun handia bait da hau, arrotzik arrotzenak ere uler dezakeenez, euskalgintzaren eremu-olorrarekin era bateko edo besteko harremana duen edonorentzat; eta egun seinalea, ondorioz, hizkuntz politikaren gurdiari aurrera eragiteko eginbidea geure gain hartua dugu-nontzat ere.

Batzuk eta besteok dituzkegu, jakina, nork geure pozbide-arrazoiak, Euskalari jakitunak nahiz euskaltzale suharrak seguruenetik izango dituztenak une batez alde batera utziaz, hizkuntz politikaren ikuspegitiko gogoeta bat edo beste egingo dizuet, zuen baimenaz, oraingo honetan:

I. Mendeak joan dira, dakigunez, Aita Manuel Larramendik, garaitezina garaitu ondoan, hiru eleko Hiztegia argitara eman zuenetik. Ez zen gainera, bere aurretik, aitzindari presturik faltatu izan: Silvain Pouvreau eta Pierre D'Urteren hiztegi-lanak aski erakuskari sendoak bait dira, besteak beste, Europa osoan zehar indartuz zihoan joera baten nondik norakoaz jabetzeko. Corpus Planning delakoaren aitzindari gutxi aurkituko genituzke etxean nahiz albo-herrietan, egungo hizkera-moldeaz jarduteko lizentzia izan ahal baneza, Larramendiren parekoak. Kiderik handienak Ipar Europan litzuzke agian, Eskandinabiar munduan, Estatu-tradizio handirik edo inolakorik gabeko herrien hizkuntzei gizarte-erabilera arautua bideratu nahi izan zietenen artean. Ezin ahaztuko dugu ordea, halaz ere, batak eta besteak aski maila desberdineko emaitzak jaso zituztela, begiz jotako helburua iristeaz denaz bezainbatean. Argi azaldu zen bertan, mundu zabaleko beste hainbat herrialde eta bazter-zokotan hamaikaxo aldis agertu den bezala, corpus-plangintzaren alorreko eginahalak ezer gutxi balio dutela horiekin batean (aurretik edo ondoren, baina estu-estu loturik) status-plangintzak eratu eta probetxuz bideratzen asmatzen ez bada. Bere ondorengo hainbatek ere (Añibarrok, Aizkibelek, Novia Salcedok edo Harrietek, kasu) izana dute noski, nork bere neurrian, gertaera mingots horren berri ikasteko aukerarik.

II. Ez da harritzekoa, horregatik, Resurreccion Maria Azkueren hiztegiak aro berri bati hasiera eman izana: hitzez ezezik egitez ere batera uztauririk eraman dira izan ere, azken ehun urteotan, corpus eta status-plangintzak. Hizkuntza eguneratzen saiatzen zenak bazituen ondoan, maiz-asko bera ere tartean izaten zelarrik, hizkuntzari gizarte-mailako bizibideak zabaltzen eta sendotzen saiatuko zirenik. Eta hiztegi-gilearen lanak, horrela, liburuaren esparru mugatutik eskolara, aldizkari-egunkarietara, olerki-saio eta antzetzokietara ordurarte ez bezalako oihartzun-eragina eskura zezakeen. Ikustekoa litzateke, alde horretatik, Azkueren ondotik plazaratutako hiztegi-gileak ere (Lopez-Mendizabal, Lhande eta, beranduago, Plazido Mujika ditudalarik gogoan) noraino ez ote diren, alde edo moldez, egungo euskaltzale jantzi edo jantzi-nahion kontzeptu-azalpenezko iturburu eta hitz-altxor.

III. Oraindik behar bezala aztertu ez ditugun arrazoiengatik erasan eta urradura sakona jaso zuen ordea, orain hogeitahogei urte, mende-hasierako euskalgintza-molde hark: bistan dago gerrak, eta seguru da gerrate-ondorenak, eragin nabarmena izan zutela horretan.


Erazegia litzateke ordea, guztiarekin ere, bide-aldaketa osoa arrazoi bakar horretan oinarritu nahi izatea. Kontua da *beste* era bateko hiztegiak direla, azken hamar-hogei urteotan bereziki, gure artean gailendu direnak: berdin gertatu da hori nola hiztegi orokorretan hala espezialduetan. Gizarte-aldaketa larri, sakon eta luze-zabaleko honen zurrunbilan murgildurik, eskuratu berria genuen hizkuntz eredu bateratua osatzeaz bat eguneroko beharrei, behar berri-berriei kasu gehienetan, erantzuten saiatu dira hiztegiok. Kintana-Mujiken zein "bostak bat" taldearen hiztegiak batetik, eta UZEIrenek bestetik, hainbat behar eta eskabideri erantzun baliagarria ematen jakin dute: eskola-munduan zein komunikabideetan, administrazio-alorrean nahiz beste hainbat gizarte-esparrutan, ez dago zalantzarik txikiena mesedegarri eta ongile izan direnik eta direnik.

IV. Bada, ordea, kezka bat, urteek aurrera egin ahala euskaldun eta euskalarien artean indartuz joan dena: ez ote dugu orain, samaldan eta tropelka jardunaz, betidaniko euskal hitz-altxorra behar bezalako begirunerik gabe tratatzeko arriskua? Eta ez ote du horrek, hiztegi-gile eta euskaltzale batzuen eta besteen arteko eritzi-desberdintasunez gainetik, euskaldun-jende osoaren hizkuntz bizitasuna moteldu eta ahulduko?

Azken epaia berari badagokio ere badirudi ez nabilkeela hain oker Euskaltzaindiak arrisku hori oso kontuan izan duela, aspaldi samarretik izan ere, badiot.

Eta gaur eskuartean dugun *Orotariko Euskal Hiztegia*, neurri on batean, belaunaldiz belaunaldiko kultur ondare horren transmisioa ahalik era osatuenean mantendu eta indarberritzeko tresna egokia gertatuko dela espero dugu denok.

Oso begi onez ikusten dute Herri-Agintek, jakina, holako asmo-helburua. Eta badute itxaropen sendorik abiaburu ezin egokiagoa gertatuko dela, oraingo idazlan zabal hau, bihar edo etzi Euskaltzaindiak, agindua digun eran, bere Hiztegi Hirirtartu Arau-emalea paratzeko. *Benetan erabili* den euskara biltzen duenez *Orotariko Euskal Hiztegiak* oinarri ona dirudi horrek, jakite-alor horietan oso jantziak ez garenontzat ere, hurrengo pausoa eman ahal izateko.



1983an taxutzen hasi eta Herri-Agintek Euskaltzaindiarekin 1984ean izenpetu genuen hitzarmena hasia da, azkenik, bere frutuak ematen. Eman eta zabal beza hiztegi honek ere, bizkaitar zindoen haritzak bezala, munduan frutua.

Eskerrik asko.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA AURKEZTEAN

Bilbo, 1987-XII-17

Ibon Sarasola

Begien bistako gauza batez hasiko naiz: Koldo Mitxelenaren ordezt hitz egiten ari naizela, berari zegokiola egiteko hau, bere hiztegiaren, bere bizitzako obra nagusienetako baten aurkezpena egitea.

Duela hamaseiren bat urte izan zen. Atera berria nuen *Euskal Literaturaren Historia* zela-eta, elkarrekin hitz egitekotan gelditu ginen. Nere liburuaren eraketa hizpide harturik, bere hiztegiaren arazoa atera zuen: ez zekien bilduak zituen fitxa eta paperak, liburu nola bihurtu. Antza zenez, organizatzailearen bila zebilen nigan. Handik egun batzuetara Errenteriako etxean, kaxoiz osaturiko altzarimoduko bat erakutsi zidan, fitxaz-eta, betea. —Hau da asuntua?— esan nion. —Bai, hau da kontua—, erantzun zidan. Aitortu behar dut harrez gero ez dudala inoiz euskaraz *asunto* hitza erabili.

Orduan hasi zen benetan gure arteko harremana. Koldorekin lan egitea bihurtu zen nere alderdi profesionalaren ardatza. Berarekin lan egiteagatik utzi nuen Barcelonako Unibertsitatea eta joan nintzen Salamancara. Han lagundu nion bere hiztegia argitaratzeko lehen saio zinezkoan. A-Agindu zatia hartzen zuena.

Aspaldi aitortu nuenez, berari zor diot dakidanaren gehiena eta naizenaren zati nabarmen bat. Berarekiko leialtasunez, esker onezko ordainez-edo, jarraitu nintzaion Gasteizko Euskal Filologi saila eratzeko mentura menturatuan. Mikel Zalbidek Mitxelenaren hiztegia kaleratzeko azpiegitura antolatzeke prest banengoan, Erakundeek behar ziren bitarteko guztiak jartzeko gertu zeudela adierazi zidanean, ez nuen dudarik egin. Eta nere maisu eta adiskide izan zen Koldorekiko leialtasunez jarraituko dut berak hasi eta mamitu zuen obra, ahal dudana neurrian burura eramaten.

* * *

Baina orobat, nere lankideen ordezt ari naiz mintzatzen: Iñaki Segurola, M. Jose Kerejeta, Gabriel Fraile, Eduardo Valencia, Blanka Urgell, Isabel Arrigain eta Arantza Egriaren izenean.

Bada Mitxelena irakaslearen lanaren alderdi bat oraindik ia kontuan hartzen ez bada ere, oinarrizkoa dena: hain zuzen irakasle gisa egin zuena. Izan ere, bere Gasteizko ikasleak dira bere jakituria zuzen zuzenean, bi, hiru, eta are lau urtez, eguneroko harremanean jaso duten bakarrak. Hor eman zuen Kolkok, adinaren heldutasunean, idazlanetan eta hitzaldietan baino areago, bere eskolarik oparoenak. Ikaslego hori gertatu da bere zientzi hil-burukoa, bere euskal testamentua. Horregatik, hiztegi honen argitaratzearen eskaintza heldu zenean, ikasle horien artean hautatu zituen lankideak. Gauzak gertutik ezagutzen dituenarentzat ezin zitekeen bestela izan. Berak jantzi ditu, azken urteotako berarizko harremanean, hiztegi gintzari eta euskal hiztegi gintzari buruzko bere ezagueran eta ikuspuntuetan. Horregatik esan nuen duela gutxi hau dela, *Orotariko Euskal Hiztegia* argitara emateko lan talderik aukerakoena.

* * *

Orotariko Euskal Hiztegiak garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da beraz, eta ez arauemailea, ez normatiboa.

Hortaz, gure helburua ez da hitz baten aldaeren artean zein den hiztegi batuan hartu behar dena erabakitzea, edo zein adiera eta esamoldeetan erabili behar den adieraztea; are gutxiago zein hitz hartu behar diren euskal hitz-tzat finkatzea. Gure helburua, aitzitik, hau da: euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren, eta *nola* baliatu diren horietaz, ahalik eta osoki eta zehatzen azaltzea. Arauak ematea Euskaltzaindiari dagokio. Baina Euskaltzaindiak ezin du araurik eman —itxurazko araurik esan nahi dut—, arau-gaiaren alderdi guztiak aski zehazki aztertu ahal izateko argibideak ez dituen bitartean. Hor kokatzen da, gure ustez, orain aurkeztzen ari garen lan honen egitekoa.

Deskriptiboa izanik, ahalik eta osoena, ahalik eta esaustiboena izan nahi du *Orotariko Euskal Hiztegi* honek. Hortaz, lehenik, aurreko hiztegi gileak bildu dituzten lekukotasun eta aipu guztiak aztertzen eta sistematikoki ematen saiatu gara.

Baina hori ez zen nahikoa. Jakina denez, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* delakoa da, argitaratu zenetik, euskal hiztegi nagusia. Berak hasi zuen euskal hiztegi gintzaren etapa berri bat; bera izan da hainbat eta hainbat ikerketa eta lanen euskarria. Euskara batuaren hiztegi aztertzeko egin diren saioen oinarria ere Azkueren Hiztegia izan da, ezin bestean.

Bere balio ukaezinak zalantzan jarri gabe, ordea, akats nabarmenak ditu Azkueren hiztegi nagusiak. Lehena, guri axola zaigun aldetik, hau da: deskriptiboa izanik ez zuela euskararen zati bat baizik deskribatzen. Ez dago hemen aipatu beharrik nola baztertu zituen hainbat euskal hitz, erderatikakoak zirelako. Baina bada beste alderdi bat hainbeste azpimarratzen ez dena, eta guretzat besteak bestea axola duena: hots, Azkue garbizalea zen —Arana Goiri'tar Sabin adina, dudarik gabe—, baina garbizaleaz gainera populista zen. Hortaz, *Diccionario Vasco-Español-Francés* delakoak jasotzen den euskara, herriaren ezpainetan jaso zitekeen euskara zen; hots, Azkuerentzat, bere Hiztegi nagusia prestatzen ari

zenean, euskara, ahozko euskara zen, berez. (Zehatzago esateko euskaldun ideal baten ahozko euskara, baina utz dezagun hori alde bat). Era berean, inoiz kontrakoa esan bada erre, Azkuek ez zuen delako hiztegian gure literatur tradizioa, berez, aintzat hartu. Idazleen testuak, ahozko euskara horren ispilu —bere uestez— ziren neurrian soilik jaso zituen.

Esan gabe doa, bestalde, Azkuerentzat, inoiz edo behin *arcaico* edo horrelakorik jarri bazuen ere, euskal hitz-ondarea denboran zeharko gorabeheretatik at dagoen zerbait zela. Euskal hitzak betidanikoak dira berarentzat. Beraz, aski da, esaterako, hitz jakin bat *Refranes y Sentencias*-en ager dadin, B ikurraz, besterik gabe, eman dezan bere hiztegian.

Eta are noskiago, ez zitzaion burutik pasatu ere egin hizkuntza batean, oro har, maila eta erregistro desberdinak, hitz landuak etab., daudela. Ez zitzaion burutik pasa, edo berdin dena, ez zuen horretaz gutxieneko axola agertu.

Akats hauek areagotu egin dira Azkueren ondotik egin diren hiztegi-lanetan. Alde batetik haren hiztegia osatzeko egitekoan aritu zirenak, batez ere bitxitasunak eta txokokeriak biltzera ahalegindu ziren, gure hitz-ondarearen irudia eta itxura areago desitxuratuz eta desorekatuz. Idazle zaharrenganik — berriak ez ziren kontuan hartzen — jasotzen ziren lekukotasunak ere izpiritu horrekin jasotzen ziren gehienetan.

Azken urteotan, zorionez eta beharrik, agertzen hasiak dira gure tradizioko autoreen hiztegia biltzen duten lanak, *Axularren Hiztegia*, adibidez. Lan hauek erabat beharrezkoak izanik, bakanak dira oraindik gure artean eta bakartuak agertzen dira. Hortaz, uste oker bat eragin dezakete: gure literatur tradizio osoa —edo merezi duena— hor bildua dagoela. Eta euskal hitz-ondarea, hiztegi batua eratzerakoan kontuan eduki beharko genukeen literatur tradizioa, askozaz ere zabalagoa eta baliabidez oparagoa dela ikustea galeraz dezakete.

Beraz, euskara osoa, “aldez eta aldiz osoa”, deskribatu nahi bazen, ez zen nahikoa orain arteko hiztegi-gintza sistematikoki biltzea. Beharrezkoa zen, orobat, gure literatur tradizioan landu eta ondu zen hitz-ondarearen bilketa zabal eta ahalik osoena burutzea, ezein garai edo euskalki arbuia gabe, inongo idazle-talde edo hitz-motarik baztertu gabe. Hots, ahal zen neurrian, tradizioaren irudirik osoena eta neutroena, aberatsena eta orekatuena ematea zen gure egiteko nagusia.

Horretarako ia hirurehun liburu biluztu ditugu, gehien gehienak muturretik muturren, Etxeparengandik hasita 1970-eraino, hau da, euskara batuaren aroa hasi zen arte. Euskalki guztietakoak, batez ere lau literatur euskalkietakoak, baina baita ere bestelakoak, Laudioiko bizkaieratik hasi eta erronkarieraraino. Eta orobat literatur mota guztietakoak, arruntenak nahiz landuenak. Baina beti garai, euskalki eta moten artean halako oreka gordetzen saiatuz.

Ia hirurehun liburutako *corpus* honek lau milioi testu-hitzetako erakusgarri bat eman digu. *Corpus* hori, orain arteko hiztegi-gileen biluzketa ahalik eta sistematikoena, eta batez ere Mitxelena irakasleak azken hogeitamar urte honetan bildu zituen gaiak dira *Orotariko Euskal Hiztegi* honen datu-oinarrria.

DICCIONARIO GENERAL VASCO
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

LUIS MICHELENA

Gaion egituraketari dagokionez, ahalik gutxien aldaratu gara Azkueren Hitzegi nagusiaren itxura eta moldeetatik, besteak beste, gure artean halako tradizio bat finkatu duelako. Baina gure helburuari jarraituz, literatur tradizioari oinarrizko garrantzia eman diogu, ahal zenean hitz bakoitzaren erabileraren historia egiten saiatuz. Era berean, nabarmenki gehitu dugu, Azkueren aldean, erabilera-adibideen kopurua. Hitz bakoitzaren adiera bakoitzean eta esapide guztietan, biluztu dugun autore bakoitzeko adibide bat ezarri dugu gutxienez, eta, oro har, delako adiera edo esapidea non eta noiz eta batez ere nola erabiltzen den zehatz azaltzeko, behar adina argigarri pilatu dugu, ugaritasunaren beldurrik gabe. Horretan ez dugu inolako zalantzarik izan, eta ez dugu uste inolako gehiegikeriatan erori garenik.

Badugu hori uste izateko arrazoi bat baino gehiago.

Gure artean egia ezin ukatuzkotzat ematen diren hainbat legek eta baieztapenek oso oinarri ahula dute, eta askotan kontrako adibideak ezin baztertuzkoak dira, edo gutxienez azterketa merezi dute. Eta ez dira falta kontrako adibideok ustezko legea oinarritzen dutenak baino ugariago edo pisu handiagokoak diren kasuak. Premiazkoa zen beraz, euskal estudioei oinarri sendoagoa emango badiogu, adibide eta kontraadibide horien sarea ikertzailearen eskumenean jartzea, salbuespenak-eta saihestu gabe.

Bestalde, lehen aipatu dudan literatur tradizioarekiko axolakabekeria, badirudi ez dugula oraindik erabat gainditu. Oso autore gutxi ezagutzen ditugu, eta gutxi horiek gaizki ezagutzen ditugu. Egungo idazleen artean oso gutxi dira gure literatur tradizioaren zentzua dutenak. Askok irudi erabat desitxuratua dute eta gehienak ez dute inongo irudirik, inondik ere ezagutzen ez dutelako.

Egoera honen aurrean ez genuke ahaztu behar hitz bat ez dela bere definizioan ahitzen. Hau da, hitz bat erabiltzeko ez da aski bere definizioaz jabetzea, are gutxiago zeren itzulpen den jakitea. Hitz bat erabiltzeko bere izateko modua-edo ezagutu behar da, ze testuingurutan agertzeko joera duen, ze lagunarte duen ohizkoen edo gogokoen, zein joskeratan gertatzen den gozoen, eta halaber, joskera bitxietan nola jokutzen duen, zer efektu eragiteko gauza den. Hori literatur tradizioaren ezaguera osatu eta orekatu batek soilik eman dezake. Euskal tradizioaren ezaguera-faltagatik ari da gertatzen, gaur egun nabari den gure literatur eta are hizkuntz katearen etetze edo bestelakotzea. Honekin ez gara eraberritzeen premia ukatzen ari. Betor hizkuntzaren eguneratzea, betor joskeraren bortxaketa. Baina gauza jakina da, nonnahi eta noiznahi, tradizioaren ezagutzan oinarritzen ez diren eraberritzeek, ikasle hasberriaren ariketa hutsalen etorkizuna dutela.

Alde honetatik, paratu dugun adibide-ugaritasunak, tradizioaren ezagutze-falta horren hutsunea bete nahiko luke.

Adibide ugari eman dugu, beraz, hitz edo esapide bakoitzaren nortasunaren berri zabal eta zehatza emateko. Baina ez dago adibide bakar bat betegarri sartua. Aldez aurreko lanean bildu genituen adibideetatik laurden bat-edo besterik ez dugu hiztegiratu, aski zelakoan; hau da, gutxieneko maila bederen betetzen genuelakoan. Hautaketa hori gauzatzen egin digu, eta egingo dugu ahaleginik handiena, Hori baita gure ustez hiztegi honekin euskaldungoari eskaintzen diogun emaitzarik garrantzikoena.

Adibide ugaritasun hau da, itxuraren aldetik, Azkueren Hiztegitik gehien bereizten gaituena. Gainerakoan, esan berri dudan bezala, eragin nabarmena izan dugu beragandik. Are gehiegizkoa, beharbada, punturen batean. Esaterako, Azkuek bezala, hitz edo aldaera bakoitzaren ahozko erabilera adierazten saiatu gara, nahiz eta konturatzin ginen hainbat kasutan argibide horiek ez dutela zentzu handirik, ahozko erabilera, geografi arazo bat baino areago gizarte maila kontua delako hainbatetan: hots, hiztun ikasiak eta ez ikasiak ez dira zaku berean sartzekoak. Halere, eta besterik ezean, ahozko erabilerari buruzko argibideak beti eman ditugu, horretarako, orain arteko hiztegitik, *Erizkizundi Irukoitzak*, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoak* eta abarrek ekarri dutena bilduz. Esan gabe doa biltze-lan horren araberako akats eta balioak dituela gure hiztegiak alderdi horretatik.

H-ari ortografi-baliorik ez aitortzean ere Azkueren biderei jarraitu diogu. Ez da ahaztu behar lan hau *duela 30 urte* hasi zela gauzatzen eta egituratzen. Gero batasunaren kontua etorri zen, baina nolabait beranduegi hiztegi honentzat. Esan nahi dugu H-a zela-eta ez genuela hainbat hilabete galdu nahi, nahikoa berandu ari baita bestela ere hiztegi hau kaleratzen.

Azkueren Hiztegia bezala, metahizkuntzatza erdara erabili dugu. Bi arrazoi izan ditugu horretarako. Lehenik arazo praktikoa. Euskara ez da oraindik kultur hizkuntza eroso, eta zenbait gairi buruz, gutxieneko etekin batez eta erabat lardaskatu gabe aritzea lan benetan nekeza da. Alferrik da hori jakingo ez bagenu bezala jardutea. Eta egia esan, nahikoa zailtasun eta buruhauste dakartza berez *Orotariko hiztegi* honek, badaezpadako etekineko beste bat gehi diezaiozun. Horrek ez du esan nahi euskara kultur hizkuntza eroso eta egoki bihurtzeko ahaleginaren aurrean *txanda pasa* egiten dugunik. Hor dago, kontrakoaren frogagarri, *Hautal-lerako Euskal Hiztegia*, aurkezten ari garen hiztegi honen irakurketa normatibo bat besterik ez dena, eta zeinari Koldo Mitxelenak bere hiztegiari adina ordu edo gehiago eskaini baitizkio azken urteotan. Euskararen aitzinamenduaren aldeko suhartasunak, gure indar mugatuak alferrik-edo ez galtzen erakutsi behar digu, beste ezer baino lehen.

Bigarren arrazoiak garrantzi handiagoa du. Obra hau munduan zeharko ikerlariak bistatik galdu gabe egin nahi dugu. Alde batetik, nazioarteko homologazioa, nolabait esateko, bilatzen dugulako. Bestetik, Azkueren hiztegiarekin gertatu zen bezala, kanpoko ikerlarien erakarle edo akuilari izan dadin nahi dugulako. Zorotasun edo ezjakintasun handia litzateke euskal estudioen atzeratasun nabarmena ukatzea. Gure maila apal hau —Europako apalenetako, ez dezagun ahaz— ahalik gehien arintzeko, denen, bertakoen eta kanpoko, euskaldun nahiz erdal-dunen laguntzaren premian gaude.

Badakigu, dena dela, ez dugula lan biribil bat eskaintzen, eta inor baino hobeki konturatzin zen Koldo horretaz. Baten bati gezurra irudituko zaio beharbada, baina gure lana erlojuaren aurkako lana da. Zera esan nahi dugu, obra honek bere fruitu guztia eman dezan, euskalari guztien laguntza behar duela. Hainbat puntu badira, hiztegi honetan, askozaz ere gehiago lant zitezkeenak. Egia esan, ez dugu horretako denborarik izan, edo nahiago izan dugu pentsatu, euskalariak ere badutela lan-proiektu honetan esku hartu beharra. Ildo beretik, argi ikusten ez ditugun puntuak, eta erabat ilun gertatzen zaizkigunak ere, plazaratu egin ditugu, guk baino jakintza edo denbora gehiago duen batek argituko dituelako esperantzaz. Lan bat eskaintzen dugu, baina orobat lana, egitekoa, eskaintzen ari gara.



Era berean, hainbat huts —idazketa-hutsak nahiz bestelakoak— itzuri zaizkigula jakinik kaleratzen dugu lehen liburuki hau, eta horrela joango dira halabeharrez besteak. Zenbaki eta kopuru handiak ez gaituzte lilurutzen, eta kantitatea baino areago, kalitatea hartzen dugu aintzat. Dena dela, berrehun milatik gora erreferentzia, aipu eta adibideren kontrol eta zuzenketak amairik gabeko denbora eskatzen du erabat egingo bada. Uler beza irakurleak, halako memento batean bukatutzat eman behar izan dugula eginkizuna, zenbait huts gorabehera.

Gure lana ez da liburuki hau kaleratzean bururutzen. Eta tamalez, umezurtz gelditu den obra honen gainerako liburukiak prestatzea ez da zailtasun gabeko lana izango. Baina Koldoren landide-taldekook ongi dakigu hau dela utzi digun betekizuna.

* * *

Guk dugu gure egitekoa lehenbailehen burutzen interes handiena. Baina hori dela eta, presaka eta muturka aritzea, *Orotariko Hiztegi* honen egilearen nahiari uko eta iruzur egitea litzateke. Ahaleginik handiena eskainiko diogu obra honi. Baina bururatzearen presa eta premia ez dugu inoiz aitzakiatzat hartuko, egileak ezarri zion gutxieneko mailaz beherago argitara emateko.

Ezin dut aurkezpen hau bukatu, lan-taldearen izenean, lagundu digutenei eskerrik zinezkoenak eman gabe. Asko izan dira, eta ezinezkoa da guztien kontua ematea. Dena dela argitaratzearen azken etapan erabakigarriak gertatu diren zenbait lagun aipatu behar ditut halabeharrez.

Lehenik nahitaezko bitartekoak, diruzkoak eta bestelakoak, ipini dituzten Euskal Erakundeetako (Eusko Jaurjaritza, Nafarroako Gobernu, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako) ordezkotza egin dutenei, batez ere Joseba Arregi eta Pako Garmendiari. Eta bereziki M. Karmen Garmendiari, azken urteotan Hiztegi hau dela eta izan dituen buruhausteak gorabehera —horietako zenbait nik neronek, etsimenezko mementuetan, emanak—, neurritz gaineko ahaleginak egin dituelako, obra honekikoak, bideratzen.

EJIEKO lagunei, Anton Aiastuiren gidaritzapean, ordenagailuak erabiltzen, eta tresneria informatikoa egituratzen eta zaintzen eskaini diguten laguntza gogoangarriatik. Orobat Fermin Larrea programatzaileari, lan honen alde agertu duen atxikimenduaz nabarmenki arindu digulako gure lanaren zailtasunaren alderdi bat.

Beharrezko genituen zenbait liburu eskuragaitz lortu dizkiguten Endrike Knörri-i, Eusko Legebiltzarreko liburuzainei, bereziki Mikel Mariazkurrenari, eta Gasteizko Fakultateko Liburutegiko Marian Egañari ere eskerrik zinezkoenak.

Euskaltzaindiko lagunei, bereziki Aita Villasanteri, Juan San Martin eta Joanjo Zearretari ere, beti eskaini diguten laguntza eragingarriatik, eskerrik asko.

Eta amaitzeko Matilderi. Ez noa Koldorengan izan zuen eragin osasungarria aipatzera, niregan izan duena baizik. Gogoratzen naiz Salamancako denboretan nola hunkitu ninduen Koldoren hiztegiarekiko zuen ardurak, eta Salamancako saio hark arrazoi teknikoagatik huts egin zuenean hartu zuen pena biziak. Batez ez ditu ezagutzen, askotan, hartzen dituen erabakien arrazoi sakonak. Baina aitortu behar dut Koldoren Hiztegia kaleratzeko azpiegitura prestatzeko eskea egin zitzaidanean, Matildereren irudi hura erabat erabakigarria gertatu zela nigan.

DICCIONARIO GENERAL VASCO/ OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)

Bilbo, 1987-XII-17

*Jose Antonio Ardanza,
lehendakaria*

Euskaltzainburu Jauna, Diputatu Nagusi Jauna, Nafarroako Gobernu eta Foru Aldundietako Ordezkariek, Agintari, Euskaltzain, Jaun-Andreok:

El motivo que nos ha reunido esta tarde aquí ocupa un lugar preeminente entre los logros culturales de este País. Y es que el inicio de la publicación del *Diccionario General Vasco* cobra un significado especial en nuestro proceso de normalización lingüística y en el enriquecimiento de nuestro acervo cultural. Precisamente por ello, las instituciones públicas, Gobierno Vasco y Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como también el Gobierno de Navarra, conscientes de la importancia y de la urgencia de llevar a buen puerto un proyecto como el de este *Diccionario General*, han prestado su aliento y apoyo material para su consecución y manifiestan, su voluntad de seguir haciéndolo en el futuro.

La alegría que significa su presentación se ve, sin embargo, empañada por la ausencia definitiva del profesor Koldo Mitxelena, que nos dejó sin haber tenido tiempo de ver el primer fruto de una labor a la que tantos y tan grandes desvelos dedicó.

Atsegin handia dut gaurko ekitaldi honetan zuekin guztiokin egoteaz. Herri baten ibilera luzean suertatzen dira, noizean behin, gazi-gozoko mugarrak: zenbat eta urrunagotik begiratu, hainbat eta habarmenago agertzen diren horietarikoak. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lehen liburukia argitaratzeak ere baluke, oso oker ez banago, urteak aurrera joan ahala Euskal Herri osoan halako oihartzun-marka geroz eta ozenagoa bereganatzeko arrazoirik.

Ez nator bestalde, jaun-andreok, jardun luzean ari izatera: besteak beste, aurretik hitzegin dutenek aski argi eta zehatz azalduak dizkigutelako ekinaldi honek, azal eta mamian dituen aitzin-asmo, helburu eta gainerako gora-beherak.

Laupabost ohar egin nahi nituzke, halere, gaurko ekitaldiaren amaierako honetan.

I. Resurrección María Azkueren hiztegiari, mende hasieran, beharrezko babesa esku-zabalik ematen jakin zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza nagusian bildurik gaude gaur. Eta ez, ezinbestean, zori itsuaren kariatz: lehenaren eta orainaren arteko katea ez da eten, ekintza honek beronek adierazten digunez; eta, aurrerantzean ere, eten ez dadin ahalegindu beharko genuke guztiok. On da guztiontzat, eta are hobe gu bezalako herri batentzat, etorkizuna lehenaldiaren oreaz moldatzen ikas dezagun.

II. Jadanik azaldu zaigunez urrats sendoa eman nahi da, *Orotariko Euskal Hiztegia* argitara emanez, hizkuntzaren normaltze-bidean barrena. Eta bidezko da, ondorioz, era batera edo bestera euskarari itxaropenezko geroa ziurtatu nahian ahalegintzen diren herritar guztiak pauso honekin poz hartzea. Ez horiek bakarrik ordea: hizkuntz egoeraren normaltzea da izan ere, askoren ustean, euskal gizartea bera egituratu, orekatu eta bere onera ekartzeko eginbeharrak handienetakoa. Eritzi horretakoak diren herritar guztiek jakin bezate gogaide dituztela, horretan, Herri Aginteak.

III. Mitxelena irakaslea gure artetik joana dugun arren badut itxaropen sendoa lan balios eta eragingarria izango dela *Orotariko Euskal Hiztegia*. Horren berri ongi dakitenek adierazia digute, oraindik asko ez dela, Koldo Mitxelena ongi erabakita utzi dituela bideak eta erizpide nagusiak.

Badago beraz zertaz itxaropena izan. Ez dezagun ahaztu, halere, lanaren hasieran gaudela, argitalpenari dagokionez, oraindik. Geroko geroaren arriskuak lehenagoko idazle nafar ezagunak ongi argitu zizkigunez, gomendio estua luzatu nahi nieke, beharrezko begirunez, Euskaltzaindiari eta hiztegiaren lantaldeari: emaziozue hiztegi honi, gorputz eta arima, behar duen dedikazioa. Lastima handia litzateke Euskal Herriarentzat behar den denbora, arreta eta jakite-maila garaiz opa ez izateagatik lan eskerga hau amaitu ezinik, argitalpena erdibidean, uztea.

Herri-Aginteek emango dizuete aurrerantzean ere, oraindainokoan bezala, beharrezko diru-babesa: zuek duzue, beraz, hitza! Eta badut itxaropen sendoa, hasieran esan bezala, eginbeharra handia izanik ere asebetzeko erantzuna ematen asmatuko duzuen.

IV. Ez nuke beste hau ere aipatu gabe utzi nahi: Herri-Aginte gehienok elkar hartuz eman zaio Euskaltzaindiari, *Orotariko Euskal Hiztegia* prestatzeko, beharrezko diru-babesa.

Poz handia da, alde horretatik, Nafarroa ere elkarlan honetara bildu izana: gaur bertan izenpetutako asmo-agiria da, urrutirago gabe, horren lekuko zuzena.

Elkarlan hau ez legoke beste hainbat alor eta zereginetara hedatu ezinik. Eusko Jaurlaritzak nahi du bide horretan barrena aurrera egin: Abenduaren 15ean onartu-berria den Dekretuaz emanak ditu, gainera, asmoetatik ekintzetarako lehen pausoak.

V. Zorionak eta eskerrak eman nahi nizkieke, azkenik, *Orotariko Euskal Hiztegia* bideratzen nola edo hala partaide izan diren guztiei:

A) Zorionak Euskaltzaindiari, bere sortarauetako eginbehar nagusi bati hain gogotsu erantzuten saiatzeagatik.

B) Eskerrak lantaldeari, beharrezko profesionaltasunez *Orotariko Euskal Hiztegiaren* langintzari bete-betean erantzuteagatik.

C) Eta gorazarrezko oroi-aipamena, azkenik, bere heriotzera arte *Orotariko Euskal Hiztegiaren* iturburu eta zuzendari izan genuen Koldo Mitxelena irakasleari. Berak erakutsi zigun, inork baino zuhurrago, herri batek bere nortasunean iraun ahal izateko bizi nahi izatea ez dela aski: bizi-nahiari bizibideak erantsi behar zaizkiola esan zigun berak, behin baino gehiagotan, ametsetik izate sendoko izanera igarotzeko.

Bide asko dira hartarako baliozkoak; eta haietariko gehienak dira, gainera, beharrezko.

Bide eta bide-zidor gehienetan barrena (edota, nahiago baduzue, aldapa askotan gora) saiatutako Koldok bat izan zuen, dena dela, begiko: eguneroko buru-lan isila. Bere fruituak iraungo du. *Orotariko Euskal Hiztegia* ez da agian, jaiotzez azkena izanik ere, azkenik aipatzekoa izango.

Amaitutzat ematen dut jaun-andreok, besterik gabe, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aurkezpen-ekitaldia.